



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bilboko sarrera barriek kontrol eta segurtasun sistema aurreratuenak ditue, azken asteetan egindako simulakroek erakusten daben moduan

Bilbon, 2013ko maiatzaren 15ean

Bizkaiko Foru Aldundiak “lehen unetik” izan dau kontuan datorren asteburu honetan zabalduko diran Bilboko sarrera barrien segurtasuna, Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako Diputatuak Batzar Nagusien aurrean gaur adierazo dauenez, Jesús Isasik, Bizkaiko Talde Popularraren bozeroaleak egindako galdereari erantzunez.

Bizkaiko Ganberako Herri Lan eta Garraioetako Batzordearen aurrean Itziar Garamendik azpimarratu dau errepide azpiegitura barriek “azken asteetan egindako simulakroetan lortutako emaitza onen abala daukiela. Simulakro horreetan aireztapen sistemak, tunel barruan suteen kontrako babes sistemak, instalazino telematikoak eta trafikoaren kudeaketarako instalazinoak aztertu dira, horreek diralako segurtasun neurriak osatzen dituen elementu nagusiak”.

Oposizinoko talde batzuk tunel barruan sutea gertatu ezker indarrean jarriko diran neurriak dirala eta erakutsitako ardurea ikusita, Foru Diputatuak holango istripuei aurre egiteko dagozan neurriak eta ekipoak aitatu ditu. Horreen artean aireztapen sistema aurreratuak eta tunel barruko tenperatura aldaketeak hautematen dituen sentsoreak dagoz, eta baita suteak itzaltzeko sistema osoa be, SOS zutabeetako armairuak eta nitxoetatik kanpo instalau diran suteetarako aho hartuneen ondoan dagozan eta itzalgailu mobikorrek dituen armairuak barne.

Garamendik adierazo dauenez, suteen kontrako babes neurri horreek zorrotzagoak izango dira Bentazarrako tunelean. “Bertan ur nebulizatu sistema barrizaillea instalau da. Mundu osoan hamar tunel inguruk baino ez daukie holango sistemarik”. Sistema horren helburua sutearen fokua mugatzea da, tunel barruan egon daitekezan gainerako turismoetara zabaltzea saihestuz, eta larrialdi ekipoek egin beharreko itzalketa beharra errazten dabe.

Segurtasun neurrien artean sistema telematiko eta trafikoaren kudeaketarako instalazino aurreratuak be badagoz. Lehenengoak osatzen dituen elementuak honeek dira: ibilgailuen zirkulazinoaren egoerari buruzko datuak hartzeko aukera emoten dituen estazinoak; Malmasineko Tunelen Kudeaketa Zentrora (MKZ) trafikoaren irudiak bialduko dituan telebista zirkuitu itxia; zer edo zer gertatu eta segiduan alarma emongo dauen sistema, gertakariak berehala hautemango dituana, megafonia, eta tunel barruan dagozan larrialdietarako ekipoakaz izan beharreko komunikazinoak erraztuko dituan kable erradiagarria.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Joaquín Colmenerok, Socialistas Vascos taldeko bozeroaleak, parte hartu dau, Foru Diputatuari eskaerea egiteko, bere saila “gizarteak hainbeste eskatu dauen azpiegitura horretako segurtasun sistemen mantentze lan egokiakaz erlazionautako guztiagaz ardura berezia euki daian”. Asier Sanzek, Bildu taldeko bozeroaleak, bere aldetik, bere ardura adierazo dau, Juan de Garai kaletik Bilbora sartzeko dagozan sarbideen edegieraren egoerea dala eta.

ARAZTEGIETAKO LUPETZATIK DATOZAN ERRAUTSAK ERREPIDEAK EGITEKO ERABILTEA

Batzorde berean, Bildu taldeak galderea egin deutso Herri Lan eta Garraioetako Diputatuari “etorkizunean errepideak egiteko uren tratamenduko errautsak erabilteari buruz”. Holan, Asier Sanz berak, aitatutako azpiegitura lanetan holango hondakinek daukien portaereagaz eta ingurumenean eta osasunean euki daikiezan eragin posibleakaz erlazionautako 8 galdera egin ditu.

Gai horren inguruan, Itziar Garamendik, bere Sailaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren artean sinatutako hitzarmenaren barruan sartu dau proiektu hori. Hitzarmen horren helburua, Foru Aldundiak kudeatutako errepide sareko hainbat zatitan uren tratamenduko errautsak aglomeratu asfaltikoa egiteko erabilteari buruzko probak egitea da.

Proiektu honetan erabiliko diran errautsak Galindoko EDARreko lupetzak erretzean sortzen dira, eta ohiko materialak ordezkatzeko edo horreen efektuak indartzeko, errepideko geruza trinkoenetako materialakaz nahastu daitekean material “pulberolentoa” dira. Foru Diputatuaren berbetan, bere erabilera zuzenenak “geruza asfaltikoa dira, filler zementua ordezkatzeko, eta horreek laborategietan probauta dagoz. Horrez gain, oinarritzko geruzetan be erabili daitekez, zementauta edo zementau barik, daukien hidraulikotasuna dala eta”.

Garamendik birziklautako material hori erabiltearen abantailak azpimarratu ditu. Horreen artean ingurumenagaz erlazionautakoak dagoz, “hondakindegia gitxiago beharko diralako, eta berrerabiltean eta birziklatzean oinarritzen dan Euskadiko Autonomia Erkidegoko garapen iraunkorreko ingurumen estrategia beteko litzatekelako”. Gainera, holango azpiegituren amaierako kostua %5 merketzea eragin, eta kare, zementu edo kareharrizko hauts gitxiago kontsumitzea ekarri daike, hau da, gitxiago isuriko litzateke atmosfera.

Abantaila teknikoei jagokenez, Aldundiko arduradunak azpimarratu dau “material ez plastikoa dala, uraren aurrean sentsibildade gitxi daukala, eta betunagaz ondo itsasten dala. Holan, aurreikuspenen arabera, geruza asfaltikoeak eta landutako oinarriek gehiago iraungo leukie”.

Joaquín Colmenerok, Socialistas Vascos taldeko bozeroaleak, bere ardurea erakutsi dau “mota horretako errautsek lur azpiko akuiferoetan izan daikien eragina dala eta”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Garamendik adierazo dau, barriro be, orain arte laborategietan egindako entseguek “materiala segurua eta errepideak eregiteko aglomeratu asfaltikoa egiteko egokia dala erakutsi dabela”.

**TXORIERRIKO ZORUA, SANTO DOMINGOKO SEGURTASUNA ETA
TRAFIKOAREN KONTROLERAKO SAREA**

Batzordearen amaieran, Jesús Isasik, Bizkaiko Talde Popularraren bozeroaleak, hainbat gaigaz erlazionautako galderak egin deutzaz Herri Lan eta Garraioetako Diputatuari. Alde batetik, Txorierriko zoruaren hobakuntzeari buruzko Arauz Besteko Proposamenen betete mailari buruz, eta bestetik, Foru Errepide Sarerako Bizkaian dagozan kontrol-zentroak batzeari eta Santo Domingoko errepidearen segurtasunari buruz.

Txorierriko zoruaren hobakuntzeari jagokonez, Garamendik adierazo dau lan horreek denpora gitxi barru hasiko dirala. Lehenengo Derio eta Larrabetzu arteko zatian hasiko dira, egin beharreko proiektu teknikoa egin eta gero.

Hainbat trafiko istripuren eszenatoki izan dan Santo Domingoganako errepidearen segurtasunari jagokonez, Foru Diputatuak adierazo dau bere Saila Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzagaz jarri dala hartu emonetan, inguru horretan instalau beharreko erradarra arin instalau daien eskatzeko, eta datoan egunetan hormigoizko erdibitzailea instalauko dala, segurtasun baldintzak hobatzeko, Galbarrietan dagoan 640 metroko zatian hasita. Isasik “ardura handiagoa” eskatu deutso Sailari, hobakuntza horreek egin daizan, aitatutako hormigoizko erdibitzailea, batez be.

Amaitzeko, Talde Popularraren bozeroaleak Bizkaiko Errepide Sareko Kontrol Zentroen erabilera hobia eskatu dau, eta zerbitzu hori Bilboko Iturrigorri auzoan dagoan zentro barrian zentralizatzeko aukerea aitatu dau. Horren aurrean, Garamendik adierazo dau “txosten teknikoek adierazoten dabenez, Bizkaian Kontrol Zentro bakarra egotea ez dala bideragarria”, eta bere Sailak “lehentasuna emoten deutzala beti segurtasunari, aurrezpenaren aurrean”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Los nuevos accesos a Bilbao cuentan con los más avanzados sistemas de control y seguridad, avalados por los simulacros de las últimas semanas

Bilbao, a 15 de mayo de 2013

La Diputación Foral de Bizkaia ha tenido en cuenta "desde el primer momento" la seguridad de los nuevos accesos a Bilbao que se inaugurarán este próximo fin de semana, según ha informado hoy en Juntas Generales la Diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, en respuesta a una pregunta del portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, Jesús Isasi.

Itziar Garamendi ha subrayado ante la Comisión de Obras Públicas y Transporte de la Cámara vizcaína que la seguridad de la nueva infraestructura viaria "está avalada por los buenos resultados obtenidos en los simulacros realizados en las últimas semanas, los cuáles han puesto a prueba los sistemas de ventilación, los de protección de incendios en los túneles, las instalaciones telemáticas y las instalaciones de gestión del tráfico, que son los principales elementos que conforman esas medidas de seguridad".

Ante la preocupación de algunos de los grupos de la oposición sobre las medidas en caso de incendio en túnel, la Diputada foral ha enumerado las medidas y equipos disponibles para hacer frente a este tipo de siniestro, entre los que se encuentran los avanzados sistemas de ventilación y los sensores en el interior de los túneles, que detectan las variaciones de temperatura, así como un completo sistema de extinción de incendios, incluidos los armarios de los postes SOS y armarios adyacentes a las bocas de incendio instaladas fuera de los nichos, que contienen extintores móviles.

Estas medidas de protección contra incendios se han extremado, según Garamendi, en el túnel de Bentazarra, "en el que se ha dispuesto un innovador sistema de agua nebulizada del que sólo disponen una decena de túneles en todo el mundo". Este sistema tiene como objetivo confinar el foco del incendio haciendo que no se propague al resto de túneles que puedan estar dentro del túnel y facilita así la labor de extinción por parte de los equipos de emergencia.

Las medidas de seguridad incluyen también avanzados sistemas telemáticos y de gestión del tráfico. Los primeros están compuestos por las estaciones de toma de datos, que permiten obtener información sobre el estado de la circulación de vehículos; el circuito cerrado de televisión, que proveerá al Centro de Gestión de Túneles de Malmasín (MKZ) de imágenes de tráfico, un sistema de detección automática de incidentes, que dará la alarma justo después de que el incidente ocurra, megafonía y cable radiante que facilita las comunicaciones a los equipos de emergencia en el interior de los túneles.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El portavoz del Grupo Socialistas Vascos, Joaquín Colmenero, ha intervenido para solicitar a la Diputada foral que su departamento “esté muy vigilante con todo lo relacionado con el correcto mantenimiento de todos los sistemas de seguridad de esta infraestructura viaria, tan demandada por la sociedad”. Por su parte, el portavoz del Grupo Bildu, Asier Sanz, ha trasladado a la Diputada de Obras Públicas y Transportes su preocupación por la situación de la apertura de los accesos a Bilbao por Juan de Garay.

UTILIZACIÓN DE CENIZAS PROCEDENTES DE LODOS DE DEPURADORA EN LA CONSTRUCCIÓN DE CARRETERAS

En la misma comisión, el Grupo Bildu ha preguntado a la titular del departamento foral de Obras Públicas y Transportes por “la utilización de cenizas procedentes de lodos de depuradora en la construcción de futuras carreteras”. Concretamente, el mismo Asier Sanz ha dirigido un total de 8 preguntas relacionadas fundamentalmente con el comportamiento de este tipo de residuos en las citadas obras de infraestructura, así como sus posibles efectos medioambientales y sobre la salud.

A este respecto, Itziar Garamedi ha enmarcado este proyecto en un convenio suscrito entre su Departamento y el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia para realizar pruebas de utilización de aglomerado asfáltico elaborado con ceniza, procedente del tratamiento de aguas residuales en diversos tramos de la red de carreteras gestionadas desde la institución foral.

Las cenizas que se utilizarán en este proyecto se producen durante la incineración de los lodos de la EDAR de Galindo y consisten en un material "pulverolento" que puede mezclarse con materiales tradicionales de las capas de los firmes de carreteras para sustituir a los habituales o potenciar sus efectos. Sus usos más directos son, en palabras de la Diputada foral, “en capas asfálticas como sustitutivas del filler cemento, ya probadas en laboratorio, además de en capas de base, cementadas o no, por su latente hidráulica”.

Garamedi ha destacado las ventajas de la utilización de este material reciclado, entre las que se encuentran las medioambientales, “ya que incidiría en una disminución de vertederos y en cumplimiento de la estrategia ambiental de desarrollo sostenible de la Comunidad Autónoma Vasca de reutilizar y reciclar”. Además, podría suponer un ahorro de hasta el 5% en el coste final de este tipo de infraestructuras y evitar o disminuir el consumo de materiales como cal, cemento o polvo calizo, lo que conlleva a su vez menos emisiones a la atmósfera.

En cuanto a las ventajas técnicas, la responsable foral ha subrayado que “se trata de un material no plástico, bastante insensible al agua y con buena adhesividad al betún, de manera que se prevé que redunde en mayor durabilidad de las capas asfálticas y en las bases tratadas”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El portavoz del Grupo Socialistas Vascos, Joaquín Colmenero, ha mostrado su preocupación por “la posible afección de este tipo de cenizas a los acuíferos subterráneos”. Garamendi ha insistido en que los ensayos en laboratorio realizados hasta la fecha “han demostrado que el material es seguro y adecuado para la elaboración de aglomerado asfáltico para la construcción de carreteras”..

FIRME DEL TXORIERRI, SEGURIDAD EN SANTO DOMINGO Y RED DE CONTROL DEL TRÁFICO

En el tramo final de la Comisión, el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, Jesús Isasi, ha dirigido una batería de preguntas a la Diputada de Obras Públicas y Transportes, relacionados con diferentes asuntos como el grado de cumplimiento de las Propositiones No de Norma relativas a la mejora del firme del Txorierri, por un lado, y los Centros de Control existentes en la Red Foral de Carreteras, por otros, así como a la seguridad vial en el Alto de Santo Domingo.

Respecto a la mejora del firme del Txorierri, Garamendi ha informado que dichos trabajos comenzarán en breve, comenzando por el tramo entre Derio y Larrabetzu, una vez elaborado el correspondiente proyecto técnico.

En cuanto, a la seguridad en la carretera del Alto de Santo Domingo, escenario de varios accidentes de tráfico, la Diputada foral ha asegurado que su Departamento se ha puesto en contacto con la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco para acelerar la instalación de un radar en la zona y que en próximas fechas se va a proceder a instalar una mediana de hormigón que mejore las condiciones de seguridad, empezando por un tramo de 640 metros en Galbarrieta. Isasi ha solicitado, en este sentido, “una mayor diligencia” al Departamento para que lleve a cabo estas mejoras, sobre todo la construcción de la citada mediana de hormigón.

Finalmente, el portavoz suplente del Grupo Popular ha pedido una mayor optimización de los Centros de Control de Tráfico de la Red de Carreteras de Bizkaia, apuntando a la posibilidad de centralizar este servicio en el nuevo centro instalado en el barrio bilbaíno de El Peñasal. A ello, Garamendi ha respondido que “los informes técnicos dicen que no es viable un único Centro de Control en Bizkaia”, y que su Departamento “prioriza siempre la seguridad al ahorro”.